


## Euskal AEko teknologia-berrikuntzaren gastuak % 10,9 igo ziren 2007an

**Autonomia Erkidego guztien artean, Euskadik dauka enpresa berriztatzaileen ehunekorik handiena 10 enplegatu eta gehiagoko enpresetan, % 32, hain zuzen.**

Euskal enpresek 2.610 milioi euro zuzendu zituzten 2007.urtean teknologia-berrikuntzekin zerikusia zituzten jarduerak egiteko. Eustaten datuen arabera, diru-kopuru hori % 10,9 hazi zen aurreko urtearen aldean. Gastu hau BPGdaren % 4,0 izan zen.

Berrikuntzak egiteko beharrezkoak diren jardueren artean, ondokoak nabarmendu behar dira: barneko I+G, gastu osoaren % 41,8 izan zena, makineria eta ekipamendua, % 34,0, eta kanpoko I+G, % 13,7. Gainontzeko jardueretan, aldiz, %10,5eko gastuak izan ziren.

**1. grafikoa; Berrikuntzarako gastuen banaketa, jarduera ezberdinen arabera. 2007. urtea. (%)**



Iturria: Eustat

Ikus daitekeenez, berrikuntzak egiteko zuzendutako gastuak urtetik urtera gora doazen arren, berrikuntzak egiten dituzten enpresen ehunekoan ez da apenas aldaketarik nabari. Euskal AEko enpresen % 16,1 berriztatzaileak izan ziren 2005-2007 aldian, zehazki 30.202 enpresa. Enpresa berriztailezat hartzen dira produktu berri bat edo nabarmen hobetua (ondasun edo zerbitzua dela ere) merkatuan sartzeko

gai direnak (% 5,5 2007.urtean), edo establezimendu beraren barruan prozesu berri bat edo nabarmen hobetua sartzen dituenak (% 14,5).

**1. taula: Enpresa berritzaileak eta berrikuntza-jardueretara zuzendutako gastuak, aldiaren arabera.**


|                             | Guztira        |                |                |                |                | 10 langile edo gehiago |                |                |                |                |
|-----------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|----------------|------------------------|----------------|----------------|----------------|----------------|
|                             | 2001-2003      | 2002-2004      | 2003-2005      | 2004-2006      | 2005-2007      | 2001-2003              | 2002-2004      | 2003-2005      | 2004-2006      | 2005-2007      |
| <b>Euskal AE</b>            | <b>16,5</b>    | <b>16,8</b>    | <b>16,9</b>    | <b>16,6</b>    | <b>16,1</b>    | <b>32,1</b>            | <b>31,9</b>    | <b>33,3</b>    | <b>32,7</b>    | <b>32,0</b>    |
| <b>Lurralde historikoa</b>  |                |                |                |                |                |                        |                |                |                |                |
| <b>Araba</b>                | 12,8           | 13,6           | 15,1           | 15,7           | 15,9           | 29,7                   | 31,9           | 33,8           | 34,3           | 30,1           |
| <b>Bizkaia</b>              | 16,0           | 17,5           | 17,6           | 17,1           | 16,7           | 30,9                   | 30,1           | 32,4           | 30,5           | 29,9           |
| <b>Gipuzkoa</b>             | 18,7           | 17,0           | 16,5           | 16,3           | 15,1           | 35,1                   | 34,6           | 34,3           | 35,3           | 36,2           |
| <b>Berrikuntzako gastua</b> | <b>1.836,0</b> | <b>2.010,2</b> | <b>2.161,7</b> | <b>2.352,2</b> | <b>2.609,9</b> | <b>1.472,6</b>         | <b>1.463,6</b> | <b>1.677,8</b> | <b>1.829,7</b> | <b>2.030,0</b> |

**Iturria: Eustat**

10 enplegatu edo gehiagoko enpresak kontuan hartzen badira soilik, ehuneko horiek % 32,0ra heltzen dira. Horrela, % 14,1ek produktu berriztatzaileak sartu zituen, eta % 26,9k, aldiz, prozesu berriztatzaileak.

**Espainiarekin eta beste Autonomia Erkidegoekin alderatzen bada**, nabarmendu beharra dago Euskal AEk duela enpresa berritzaileen ehunekorik handiena (% 32,0) 10 enplegatu edo gehiagoko enpresetan; Nafarroa (% 30,5) eta Katalunia (% 27,4) kokatzen dira ondoren, eta Espainiako batez bestekoa % 23,5 da.

**2. grafikoa: 10 enplegatu edo gehiagoko enpresa berritzaileak. 2005-2007. (%)**



**Iturria: Eustat eta EIN**

**Produktu berriztatzaileek % 25,2ko eragin ekonomikoa izan zuten enpresa berriztatzaileen negozio kopuru osoan 2005-2007 aldian.**

Bestalde, enpresa berriztatzaileen negozio kopuru osoaren % 25,2 produktu berriztatzaileak izan ziren. Aldatu gabeko produktuak edo pixka bat aldatutako produktuak, aldiz, % 74,8 izan ziren. Produktu hauek enpresarako ez ezik merkaturako ere berriztatzaileak badira, % 12,1eko eragin ekonomikoa izango dute batez beste. Ehunekoak zertxobait aldatzen dira 10 enplegatu edo gehiagoko enpresetan. Orain, produktu berriek edo nabarmen hobetu direnek negozio kopuruan duten batez besteko eragina % 22,4koa da. Horrez gain, produktua merkatuan berria bada, batez besteko eragin ekonomikoa % 8,7koa izango da.

**Enpresa berriztatzaileen % 27,7k finantzaketa publikoa jaso zuen**

Enpresa berriztatzaileen % 27,7k finantzaketa publikoa jaso zuen berrikuntza-jarduerak egiteko. Laguntzaren jatorriari erreparatzen badiogu, Eusko Jaurlaritzak emandakoa da nagusi, enpresa horien guztien % 15,8ra heltzen baita. 10 enplegatu edo gehiagoko enpresen % 44,0k laguntzak jaso zituen; kasu horretan ere Eusko Jaurlaritzak enpresa gehienak finantzatu zituen, zehazki enpresa berritzaile mota horien % 33,6.

**2. taula: Finantzaketa publikoa jasotzen dituzten enpresa berriztatzaileak, jatorriaren arabera. 2005-2007. (%)**

Unitatea: enpresa portzentajea

|                                                          | Guztira     | 10 langile<br>edo gehiago |
|----------------------------------------------------------|-------------|---------------------------|
| <b>Finantzaketa publikoa<br/>jasotzen dute hauetatik</b> | <b>27,7</b> | <b>44,0</b>               |
| Tokiko administrazioak                                   | 1,6         | 5,2                       |
| Foru aldundiak                                           | 10,9        | 14,6                      |
| Eusko Jaurlaritza                                        | 15,8        | 33,6                      |
| Administrazio zentrala                                   | 3,3         | 14,1                      |
| Europar Batasuna                                         | 6,5         | 8,4                       |

**Iturria: Eustat**

Berrikuntzak egiteko lankidetzari dagokionez, establezimendu berriztatzaileen % 10,5 lankidetzan aritu zen. Izan ere, 10 enplegatu edo gutxiagoko enpresen % 9,3k soilik berrikuntza edo I+G jarduerari buruzko lankidetzak akordioaren bat sinatu zuen.

10 enplegatu edo gehiagoko establezimenduen artean % 22,0k berrikuntzari zuzendutako lankidetzak sinatu zituzten. Tamaina honetako enpresen hauei dagokienez, lankidetzak akordioaren bat sinatu dutenen artean, nabarmendu beharra dago ondokoekin batera egindako lankidetzak: zentro teknologikoak (% 47,6), ekipamenduen, materialen... hornitzaileak (% 46,3), adituak eta firma aholkulariak (% 35,0), enpresa bereko bestelako establezimenduak (% 34,8), unibertsitateak eta beste erakunde batzuk (27,8).

### **Enpresen erdiak uste du zenbait faktorek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela**

Enpresen erdiak, % 50,7k hain zuzen ere, uste du zenbait faktorek teknologia-berrikuntza oztopatzen dutela. Faktore horien artean, enpresek nabarmentzen dute berrikuntzak egiteak dakartzan kostu handiak (% 42,0), baita arrisku ekonomikoak ere, gehiegizkoak direla uste baitute (% 35,8). 10 enplegatu edo gehiagoko enpresen artean, % 60,3k uste du berrikuntza ekonomikoa oztopatzen dituzten faktoreak daudela, eta goian aipatutako oztopoak ere nabarmentzen dituzte.

### **3. taula: Enpresak, berrikuntzari traba egiten dioten faktoreen arabera. 2005-2007.(%)**

|                                                          | Unitatea: enpresa portzentajea |                               |
|----------------------------------------------------------|--------------------------------|-------------------------------|
|                                                          | <b>Guztira</b>                 | <b>10 langile edo gehiago</b> |
| <b>Berrikuntzari traba egiten dioten faktoreak daude</b> | <b>50,7</b>                    | <b>60,3</b>                   |
| <b>Faktore ekonomikoak:</b>                              | <b>44,8</b>                    | <b>52,3</b>                   |
| .- Gehiegizko arrisku ekonomikoak                        | 35,8                           | 40,3                          |
| .- Berrikuntzako kostu handiak                           | 42,0                           | 48,2                          |
| .- Finantzaketa-iturririk ez                             | 31,9                           | 36,4                          |
| <b>Barruko faktoreak:</b>                                | <b>34,3</b>                    | <b>45,3</b>                   |
| .- Erakundearen zorrotasunak                             | 12,8                           | 23,7                          |
| .- Langile gaiturik ez                                   | 23,2                           | 29,4                          |
| .- Teknologiari buruzko informaziorik ez                 | 21,0                           | 28,4                          |
| .- Merkatuei buruzko informaziorik ez                    | 18,1                           | 27,2                          |
| <b>Beste faktore batzuk:</b>                             | <b>29,7</b>                    | <b>33,6</b>                   |
| .- Arauek malgutasun urria dute                          | 17,7                           | 21,7                          |
| .- Bezeroek sentikortasunik ez                           | 23,0                           | 26,5                          |

**Iturria: Eustat**

### **Enpresa berriztatzaileen %24,0k patenteren bat edo bestelako metodoak erabili zituen haren asmakuntzak edo berrikuntzak babesteko**

Aipatu behar da enpresa berriztatzaileen %24,0k patenteren bat edo bestelako metodoak erabili zituela 2005-2007 aldian haren asmakuntzak edo berrikuntzak babesteko. Horrela, aldi horretan, enpresen % 1,4k bere establezimenduan garatutako asmakuntzak edo berrikuntzak babesteko patenteren bat eskatu zuen, eta % 1,9k baten bat indarrean zeukan 2007ko amaieran. Enpresa berriztatzaileen %23,4k babesteko bestelako metodoak erabili zituen aipatutako aldian. Azken horien artean, aipatzekoak dira eredu enregistra, fabrika-markak, egile-eskubideak, etab.

Ehunekoek gora egiten dute, alabaina, 10 enplegatu edo gehiagoko enpresa berriztatzaileak soilik kontuan hartzen badira. Zehazki, % 26,7k patenteren bat edo babesteko bestelako metodoak erabili zituen aldi horretan; % 5,3k patenteren bat eskatu zuen, eta % 7,5ek patenteren bat zuen indarrean 2007ko amaieran. Era berean, enpresen % 24,2k babesteko metodoak erabili zituen.

**Ohar metodologikoa:** Eustatek egindako Teknologia Berrikuntzaren Inkesta edozein tamainatako, edozein sektoretako euskal enpresei zuzendurik dago (lehenbiziko sektorea izan ezik), baita herri administrazioei eta etxeko zerbitzuei ere. Bere helburua enpresek berrikuntzaren alorrean egindako jardueren inguruko informazioa eskaintzea da. Inkesta Euskal AEn kokaturik dauden 3.400 establezimenduko eredu-laginean oinarritzen da.

---

**Argibide gehiago:** Euskal Estatistika Erakundea  
Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe +34-945-01 75 01 Helb. elektronik.: [eustat@eustat.es](mailto:eustat@eustat.es)  
Harremanetarako pertsona: José Miguel Escalada  
Tel.: +34-945-01 75 96 Faxe: +34-945-01 75 01  
Prentsa-oharrak Interneten: [www.eustat.es](http://www.eustat.es)